

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 599/2024 Erabakia, urriaren 22koa. Onestea garapen bidean dauden herrialdetan irabazteko xederik gabeko entitateen bidez gauzatu beharreko urte anitzeko garapenerako lankidetzaren proiektuak finantzatzeko laguntza larriaren ebazpena (deialdia martxoaren 19ko 149/2024 Erabakiaren bidez egin zen)**

2024ko maiatzaren 19an, Foru Gobernuaren Kontseiluaren 149/2024 Erabakia onetsi zen; haren bidez, onespena eman zitzaion garapen bidean dauden herrietan irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez burutu beharreko garapenerako urte anitzeko lankidetzaren proiektuak finantzatzeko 2024ko deialdiari.

Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak, orain aipatuko diren Arabako Foru Aldundia-  
ren 2023rako aurrekontuko partiden kontura ordainduko dira. Aurrekontu hori 2024rako luzatu da, eta kapitulu eta urteko kuoten arabera banatu da kreditua:

Gastu arrunta 2024an: 455.471,00 euro.

Partida: 25301. G/232252/48100263.

Inbertsioan egindako gastua 2024an: 37.235,95 euro.

Partida: 25301. G/232252/78100250.

Gastu arrunta 2025ean: 468.229,73 euro.

Partida: 25301. G/232252/48100263.

Inbertsioan egindako gastua 2025ean: 29.411,67 euro.

Partida: 25301. G/232252/78100250.

Gastu arrunta 2026an: 473.411,29 euro.

Partida: 25301. G/232252/48100263.

Inbertsioan egindako gastua 2026an: 25.061,62 euro.

Partida: 25301. G/232252/78100250.

Eskaerak aurkezteko epean, hamahiru laguntza eskaera jaso dira.

Aurkeztutako eskaerak eta haiei erantsitako dokumentazioa azterturik, Garapenerako Lankidetzaren arlo teknikoak txostenak eman zituen, eta laguntza balioesteko batzorde teknikoak izenpetu egin zituen. Bertan, aurkeztutako eskaera bakoitzari balioespen irizpideak aplikatu ondoren dagokion puntuazio osoa adierazten da, eta proposatzen da dirulaguntza hamar erakunderi eta beren proiektuei ematea; hona hemen zer dirulaguntza emango zaien, guztira:

Gastu arrunta 2024an: 433.083,42 euro.

Partida: 25301. G/232252/48100263.

Inbertsioan egindako gastua 2024an: 45.561,88 euro.

Partida: 25301. G/232252/78100250.

Gastu arrunta 2025ean: 445.831,35 euro.

Partida: 25301. G/232252/48100263.

Inbertsioan egindako gastua 2025ean: 48.787,86 euro.

Partida: 25301. G/232252/78100250.

Gastu arrunta 2026an: 450.736,71 euro.

Partida: 25301. G/232252/48100263.

Inbertsioan egindako gastua 2026an: 44.273,16 euro.

Partida: 25301. G/232252/78100250.

Deialdiaren ebazpena ezartzen duen hamabigarren artikulua arabera.

Horregatik, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Ebazpena ematea garapen bidean dauden herrietan irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez burutu beharreko garapenerako urte anitzeko lankidetzak proiektuak finantzatzeko 2024ko deialdiari.

Bigarrena.- Deialdiaren hirugarren xedapen zatiari atxikitzen zaio, non ezartzen baita "hasieran esleitutako zenbatekoak aldatu ahal izango dira, handituz edo gutxituz, erantzun ahal izateko gastu arruntei eta inbertsioko gastuei, indarrean dagoen araubide ekonomikoaren eta aurrekontuen araubidearen aginduak betez eta deialdiari egotzitako muga globalari eutsita".

Deialdi hau ebazteko, birbanaketa bat egingo da gastu arruntaren gastutik inbertsio gastura, honela:

- 1. urtea: 8.325,93 euroko zenbatekoan.
- 2. urtea: 19.376,19 euroko zenbatekoan.
- 3. urtea: 19.211,54 euroko zenbatekoan.

Hirugarrena.- Erakundeei laguntza ematea, bai eta proiektuetarako ere, I. eranskinean adierazitako moduan, zenbateko hauekin eta Arabako Foru Aldundiaren 2024rako luzatutako 2023ko aurrekontuko "Elkartasun funtsak, lankidetzarako laguntzak" izeneko partida hauen kargura, urteka honela banatuta:

Gastu arrunta 2024an: 433.083,42 euro.

Partida: 25301. G/232252/48100263.

Inbertsioan egindako gastua 2024an: 45.561,88 euro.

Partida: 25301. G/232252/78100250.

Gastu arrunta 2025ean: 445.831,35 euro.

Partida: 25301. G/232252/48100263.

Inbertsioan egindako gastua 2025ean: 48.787,86 euro.

Partida: 25301. G/232252/78100250.

Gastu arrunta 2026an: 450.736,71 euro.

Partida: 25301. G/232252/48100263.

Inbertsioan egindako gastua 2026an: 44.273,16 euro.

Partida: 25301. G/232252/78100250.

Laugarrena.- Erakundeei eta proiektuei, II. eranskinean adierazitako eran, laguntza ukatzea.

Bostgarrena.- Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordaindu dezala emandako laguntzaren zenbatekoa, laguntza arautzen duten oinarrietan zehaztutako moduan.

Seigarrena.- Aurrerakinak gauzatu ahal izateko, onuradunak aipatutako datan epea bukatuta eta justifikatu gabe dauden AFAk diruz lagundutako egitasmo guztiak aurrez justifikatu beharko ditu.

Zazpigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeei 2024an garapen bidean dauden herrialdeetan urteko lankidetzak-ekintzak, urte anitzekoak, finantzatzeko diru-laguntzak eskatzen dituzten erakundeei. Diru-laguntza horiek norgehiagoka bidez emango dira.

Zortzigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Bederatzigarrena.- Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena hartu duen organo berean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 22a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua*

**JONE BERRIOZABAL BÓVEDA**

*Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria*

**JOANA DEL HOYO FERNÁNDEZ**



I ERANSKINA-ANEXO I  
EMANDAKO DIRULAGUNTZAK/SUBVENCIONES CONCEDIDAS

EXP.	ERAKUNDA/ENTIDAD	IFK/CF	BP	PROIEKTUA/PROYECTO	% PUNTUATZOA- PUNTAJACION	DIRUZ LAGUNDU AURRIRONTU- PROGRAMEN TOTALA	DIRULAGUNTZA DIRULAGUNTZA GUTURRA IMPORTE TOTAL SUBVENCION DPA	DIRULAGUNTZAAREN IMPORTE SUBVENCION ANO I URTEA	GASTU KORRIENTA- GASTOS CORRIENTE	INBERTSOAK- GASTOS INVERSION	DIRULAGUNTZAAREN IMPORTE SUBVENCION ANO II URTEA	GASTU KORRIENTA- GASTOS CORRIENTE	INBERTSOAK- GASTOS INVERSION	DIRULAGUNTZAAREN IMPORTE SUBVENCION ANO II URTEA	GASTU KORRIENTA- GASTOS CORRIENTE	INBERTSOAK- GASTOS INVERSION
1189_03	SETEM - Hego Harea	601119205	10005968	Mujeres de Antioquia - Compensación baratas para vivir en poder político y equidad de género	81,91	185.871,88	148.897,56	49.199,19	49.199,19	-	49.693,14	49.693,14	-	49.799,23	49.799,23	-
1189_06	Asociación Músicos Solistas sin fronteras	601234640	10006177	Desarrollar redes de cooperación de mujeres para enfrentar la violencia machista y reducir los efectos del cambio climático en Guatemala.	79,79	200.910,18	147.071,97	49.605,99	49.605,99	-	49.605,99	49.605,99	-	49.605,99	49.605,99	-
1189_10	Ingeniería para la Cooperación- Lankidantziako Ingeniaria (LCU)	601198274	10006140	Acompañando el empoderamiento de profesoras y alumnas marfileñas para garantizar el derecho a una educación equitativa, inclusiva y de calidad	77,66	199.621,12	148.483,89	49.115,83	45.983,00	3.132,83	49.655,01	46.872,85	2.782,19	49.663,02	47.826,01	1.837,01
1189_09	Mugirik Gabe ONGD	648263446	10006879	Estrategia ancestral para el fortalecimiento organizativo y herramientas de autocuidado y protección para las mujeres indígenas del territorio CAC.	76,6	180.829,57	137.296,76	37.796,76	37.796,76	-	49.700,00	49.700,00	-	49.800,00	49.800,00	-
1189_04	Médicos Mundí Raro-Araba	601109644	10005924	Sinchi women/mujeres indígenas escatonaras y sus derechos sociales, económicos y políticos	74,51	198.421,59	147.213,00	48.708,00	36.799,47	11.908,53	49.203,00	36.023,45	13.179,55	49.302,00	38.000,56	11.291,44
1189_12	Asociación Colomba Euzkadi	601373943	10006342	Proyecto de protección y atención a mujeres jóvenes e hijas/os víctimas de violencia de género en Tolima. Segunda fase	74,47	522.517,08	147.884,62	48.999,50	41.611,64	7.387,86	49.549,50	42.161,64	7.387,86	49.945,62	41.957,76	7.987,86
1189_13	Asociación Unión y apoyo del hablante de pára "huaypuri"	601513308	10006554	Tumbodiri Alva-bobaya	71,57	184.641,82	147.213,01	48.708,00	27.582,26	21.125,74	49.203,01	27.253,79	21.943,22	49.302,00	27.691,72	21.610,28
1189_01	Senso - San Vitor de Euzalberna	601138858	10006013	Estrategia integral de prevención y atención a mujeres, niñas y niños víctimas de violencia de género en municipios hondurinos de Jutupa	71,28	206.855,39	148.700,00	49.200,00	49.200,00	-	49.700,00	49.700,00	-	49.800,00	49.800,00	-
1189_05	Fundación Alboan	648811376	10004189	Voces de mujeres empoderadas y articuladas contra la violencia de género y la deforestación de los derechos en las regiones de Cusco, Pura y Lima.	68,09	197.071,68	147.807,57	48.712,03	48.363,92	349,11	49.203,53	45.714,49	3.489,04	49.192,01	47.035,44	2.156,57
1189_07	Nafarroa Euzkara - Solidaridad Interaccional	64801428	10006882	Protección de los derechos humanos de mujeres para la prevención de la violencia de género en pueblos indígenas de Madre y Caribe Norte, Nicaragua	64,89	191.428,15	148.700,00	49.200,00	47.542,19	1.657,81	49.700,00	49.700,00	-	49.800,00	49.800,00	-
						2.267.998,46	1.468.274,38	478.645,30	433.083,42	45.661,88	494.619,21	445.831,35	48.792,86	495.009,87	450.736,71	44.273,16

